

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

2020. urtean Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako euskarazko ikastaroetara joateagatik ematen diren beken deialdia egiten duen alkatetza-ebazpenaren laburpena

BDNS (Identif.): 524748

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/524748>)

Lehenengoa. Onuradunak

Amurrion erroldatuta dauden pertsona fisikoak, 16 urtetik gorakoak.

Bigarrena. Helburua

Deialdi honen helburua da Amurrioko biztanleek Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako euskarazko ikastaroetan parte har dezatela sustatzea xede duten laguntza ekonomikoak arautzea, norgehiagokako erregimenean.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Aurrekontu-gauzatzearen Udal-arauaren VII. kapituluari jasotako dirulaguntzen oinarri arautzaileak 2020ko ekainaren 19ko ALHAOn argitaratu ziren (32. oinarria). Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako euskarazko ikastaroetara joateagatik ematen diren beken oinarriak arautzen dituen araua.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honetarako diru-hornidura 500 eurokoa da.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

2020ko urriaren 1etik 31ra.

Amurrion, 2020ko irailaren 22an

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA